



¿Qué es
importante
para ti?
planificación compartida de la atención

Pentsatu, egin hausnarketa...

zure balioei eta gura lehentasunei buruz

Nolako osasun-egoera imajinatzen duzu?

Zer-nolako zainketak jaso nahi dituzu?

Arretaren plangintza partekatuak zure balioei eta nahiei buruz jakiten laguntzen digu.

Hitz zure senideekin edo maite dituzun horiekin.

Hitz egin zure mediku eta erizainarekin, prozesua bera azalduko dizute, eta, egoki baderitzozu, **Aurretiatzko Borondateen Dokumentua** idazten eta erregistratzen lagunduko dizute.



Pentsatu zure bizi-kalitateari buruz

Zer da garrantzitsua zuretzat? Zerk dauka balio handiagoa?

Zerekin gozatzen duzu? Zerk ematen dio balioa zure bizitzari?.....

.....

Zuretzat, zer da bizi-kalitatea?

Zeren falta izango zenuke gehien ezin izango bazenu egin? Oinez ibiltzea, hitz egitea, jatea, pentsatzea...

Osasuna eta zainketa sanitarioak

Ba al duzu gaixotasun edo osasun-arazorik?

Nola eragiten dizu eguneroko bizitzan?

Zure ustez, zer bilakaera izan dezake zure gaixotasunak (halakorik baduzu) edo osasun-egoerak?

Nola irudikatzen duzu zeure burua bost edo hamar urte barru?

Informazioa eta erabakiak hartzea

Zenbat jakin nahi duzu zure gaixotasunaren edo osasun-egoeraren etorkizuneko bilakaerari buruz?

Oinarrizkoena baino ez

Ahal den guztia

Parte hartzen al duzu zure osasunari buruzko erabakiak hartzean?

Nahiago dut nire medikuak eta erizainak nire ordeztu erabakitzea

Nik erabaki nahi dut, informazioa jaso eta gero

Nahi al dut nire senideek edo maite ditudanek erabakietan parte hartzea nik ezin izango banu?

Hitz egiteko edo adierazteko gai izango ez bazina, nork nahi duzu zure izenean hitz egitea?

Pertsona horri edo horiei esan al diezu zer nahiago duzun?

Pentsatu bizitzaren amaieraz

Pentsatu lagundu edo zaindu duzun senide edo ezagun batean, oso gaixorik dagoena edo hil egin dena. Esperientzia horrek hausnartzera eramán zaitu?

Alderdi **positiboak**

Alderdi **negatiboak**

<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>
<hr/>	<hr/>

Zenbat eta luzaroago bizi, orduan eta hobeto, ala zuretzat garrantzitsuagoa da bizi-kalitatea bizitako hilabete edo urte kopurua baino?

Gaixotasun bat fase aurreratuan baduzu...

Zer tratamendu- eta zainketa-mota jaso nahi dituzu?

Zeintzuk nahiago ditut ez jasotzea?

Pentsatu duzu ba ote dagoen egoeraren bat non ez zenukeen nahi izango sendatzeko asmoa duten tratamendurik eta nahiago izango zenukeen mina edo sufrimendua arintzeko tratamendua soilik ematea?

Neuroendekapenezko gaixotasun baten edo dementzia baten ondorioz zure kabuz elikatzen ez bazara, irensteko zailtasunak badituzu eta janariaz eta edariaz gozaten ez baduzu, aho bidez jaten edo edaten uztea nahiko zenuke?

Zure bizitzako azken etapan bazaude...

Ez dut jakin nahi bizitzeko gutxi
geratzen ote zaidan

Jakin nahi dut zenbat geratzen
zaidan eta zer-nolako bizi-
kalitatearekin

Zuretzat, zer esan nahi du ondo hiltzeak?

Heriotzari buruz pentsatzean, zerk kezkatzen zaitu?

Non nahiago zenuke artatzea bizitzako azken asteetan edo egunetan?

- Nire etxean, hori ez bada gainkarga handia zaintzaileentzat
- Zentro sanitario batean
- Egoitza geriatriko edo soziosanitario batean
- Ez zait axola, nire ordezkariak edo zaintzaileak erabaki dezatela

Organoen eta/edo ehunen emaile izan nahiko zenuke, ahal izanez gero?

BAI

Ez

Eutanasia

EUTANASIA esaten zaio pertsona baten heriotzak zuzenean eta nahita eragiten duen jokabideari, eta pertsona onartezintzat jotzen duen eta beste bitarteko batzuen bidez arindu ezin izan den gaixotasun edo sufrimendu sendaezin baten ondoriozko sufrimendutestuinguru batean gauzatzen denari.

Eutanasia arautzen duen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak aukera ematen du Aurretiazko Borondateen Agiriaren bidez eskatzeko, honelako egoeretan erabakiak hartzeko gai ez bada:

- *Nire bizitzaren azkenetan, aurrera doan gaixotasun aurreratu, itzulezin eta sendaezin baten ondorioz, bizi-itxaropen mugatuarekin.*
- *Garuneko kalte larri eta itzulezinarekin (koma, gutxieneko kontzientzia-egoera, egoera begetatibo iraunkorra).*
- *Edozein jatorriko dementzia, itzulezina, larria edo oso larria den gabezia kognitibo eta funtzionala eragiten duena.*

Zer iritzi duzu eutanasiari buruz?

Informazio gehiago behar duzu?

Gai ez-sanitarioak

Nahi al duzu zure familiak jakitea zer nahiago duzun beste alderdi batzuei buruz, hala nola agurrak edo hileta, laguntza erlijioso, ehorzketa edo errausketa, etab.?
